

Zergatik nesken eta mutilen taldeak? eta talde mixtorik ez?



Gai horren inguruan nahiko eztabaida dago gure arloko foro ezberdinetan baita gure artean ere. Esperientzia ezberdinak ditugu eta emaitza eta ondorio anitzak. Balorazioak egiterakoan ezin ditugu egoera (interakzioak dauden edo ez...) eta praktika (lehiakorrak, kooperatiboak...) guztiak zaku berdinean sartu eta trataera berdina eman.

Lezon talde mistoak izan ditugu (parte hartzeko ibilbideko testuingurua; astean bi saio eta partidua) baina benjamin eta alebinen esperientzia txarra izan zen. Are gehiago, ikastetxetik proposatu zen sexu araberako taldeak osatzea eta lehen urteetan (gaur egun gainditua dugu hori) ere hezitzailea emakumezkoa izatea. Lehen urteetan talde mistoetan parte hartu zuten neskek jarduera utzi zuten hein handi batetan.

Badira ikastetxeak non esperientzia positiboa den eta aurrera jarraitzen duten talde mistoekin; aipatu behar lehen urteetan egiten ohi dela bakarrik (LH3-LH4). Adin biologikoak, garapen mailak, interes pertsonalak, jarduerak eta testuinguruak garrantzia dute erabaki horiek hartzeko garaian. Pertsonalki sentsibilizazio handia dut gaiarekin eta urtero eztabaidatzen dugun gaia da baina argi ikusten ez dugun bitartean ez dugu talde mistorik egiteko erabakirik hartuko.

Hala ere, neska eta mutilen jarduera gurutzatzea positiboa izango dela baloratzen dugun ekintzetan, jarduerak elkarrekin egiten dituzte; LH2ko haurrekin egiten den jarduera., igerilekuetan txokoka antolatzen diren saioak, herri kiroletako saio bereziak...

Gai honekin amaitzeko aipatu nahiko nuke, gure egiturako arduetatik kanpo gelditzen bada ere, igeriketa kanpaina eta UDA kanpaina, besteen artean, Eskola Kiroleko programako jarduerak direla eta praktika guzti hauek elkarrekin egiten dituztela neskek eta mutilek. Arazotxoak sortzen zaizkigu parte hartzeko lehiaketetako jarduerekin hasten garenean, hain zuzen guk jorratzen dugun esparrua.